Araba / Álava	154,5	12,4	99,6	17,9	2,3	1,8
Bizkaia	565,9	20,5	98,6	20,5	1,7	1,2
Gipuzkoa	350,9	26,2	99,5	18,0	2,5	2,7

Iturria: Eustat. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Familiak.
Fuente: Eustat. Encuesta de la Sociedad de la Información. Familias

El informe *Language Vitality and Endangerment (2003)* de la UNESCO distingue seis estados de vitalidad desde el punto de vista de la presencia de la lengua en ámbitos nuevos y en medios de comunicación (quinto factor):

- Dinámica: la lengua es utilizada en todos los ámbitos nuevos.
- Fuerte / activa: la lengua es utilizada en la mayoría de los ámbitos nuevos.
- Pasiva: la lengua es utilizada en muchos de los ámbitos nuevos.
- Comprometida: la lengua es utilizada en algunos de los ámbitos nuevos.
- Minoritaria: la lengua es utilizada en pocos de los ámbitos nuevos.
- Sin actividad: la lengua no se utiliza en ninguno de los ámbitos nuevos.

Tras analizar estos seis estados de vitalidad, se podría decir que el euskera está en una situación comprometida, es decir, que se acerca a la cuarta situación.

UNESCOren *Language Vitality and Endangerment (2003)* txostenak sei bizi-indar egoera desberdintzen ditu hizkuntzek eremu berrietan eta komunikabideetan duten presentziaren ikuspuntutik (bosgarren faktorea):

- Dinamikoa: hizkuntza eremu berri guztietan erabiltzen da.
- Sendoa/aktiboa: hizkuntza eremu berri gehienetan erabiltzen da.
- Pasiboa: hizkuntza eremu berri askotan erabiltzen da.
- Konprometitua: hizkuntza eremu berri batzuetan erabiltzen da.
- Gutxienekoa: hizkuntza eremu berri gutxi batzuetan erabiltzen da.
- Aktibitatearik gabekoa: hizkuntza ez da inolako eremu berrietan erabiltzen.

Sei bizi-indar egoera hauek aztertu ostean, nire ustez, euskara egoera konprometituan dagoela esango nuke; alegia, laugarren taldera hurbiltzen dela.

4. LA INFLUENCIA DE LA ENSEÑANZA

Según el informe *Language Vitality and Endangerment* (2003), el sexto factor que influye en la supervivencia de una lengua es que la enseñanza se desarrolle en esa lengua y que disponga de material educativo (sexto factor).

4.1. Enseñanza de régimen general no universitaria

El 60% de los estudiantes de enseñanzas de régimen general no universitarias de la C.A. de Euskadi estudiaba en el modelo D en el curso 2010-2011 (toda la enseñanza en euskera, salvo la de lengua castellana) y el 22% en modelo B (la mitad de la enseñanza en euskera y la otra mitad en castellano). Es decir, cuatro de cada cinco estudiantes escogían modelos educativos en euskera.

Aun así, también en este factor encontramos diferencias notables de un territorio a otro. En Gipuzkoa, el 74,7% de la población estudiante no universitaria estudiaba en el modelo D durante el curso 2010-2011, lo hacía el 55,4% de la de Bizkaia y el 42% de los alaveses. El 25,5% de la población estudiante alavesa, el 20,6% de la vizcaína y el 9% de la guipuzcoana estudiaba en el modelo A (toda la enseñanza en castellano, salvo la asignatura de lengua vasca). También en ese caso, la situación sociolingüística de cada territorio influye a la hora de escoger el modelo educativo de cada niño y niña y, por lo tanto, los modelos educativos en euskera están más extendidos en Bizkaia, y especialmente en Gipuzkoa, que en Álava.

Estudiantes de enseñanzas de régimen general no universitarias de la C.A. de Euskadi, por territorio histórico y modelo de enseñanza. 2010-2011 (%)

24

Euskal AEko araubide orokorreko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetako ikasleak, lurralde historikoaren eta irakastereduaren arabera. 2010-2011 (%)

	Euskal AE C.A. de Euskadi	Araba / Álava	Bizkaia	Gipuzkoa
A eredia / Modelo A	17,35	25,5	20,6	9
B eredia / Modelo B	22,02	32,5	23	16,3
D eredia / Modelo D	60,02	42	55,4	74,7
X eredia / Modelo X	5,86	–	1	–
Guztira / Total	341.723	51.134	173.466	117.123

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren eta Eustat. Irakaskuntzaren Estatistika.

Fuente: Departamento de Educación, Universidades e Investigación. Gobierno Vasco y Eustat. Estadística de la Enseñanza.

A pesar de las diferencias, desde el año 1983 el modelo D ha crecido sin pausa ni interrupciones en la C.A. de Euskadi. El fenómeno de matricular a los hijos e hijas en el modelo D es ajeno a cualquier actitud política o moda, lo cual incide directamente en el aumento del número de personas capaz de comunicarse en euskera. Por otra parte, el modelo A ha disminuido notablemente.


4. IRAKASKUNTZAREN ERAGINA

Language Vitality and Endangerment (2003) txostenaren arabera, hizkuntza baten biziraupenean eragiten duen seigarren faktorea da irakaskuntza hizkuntza horretan egitea, eta ikas-materialak izatea (seigarren faktorea).

4.1. Araubide orokorreko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza

Euskal AEko araubide orokorreko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetako ikasleen % 60ak D ereduan ikasten zuen 2010-2011 ikasturtean (gaztelania irakasgaia kenduta, irakaskuntza guztia euskaraz), eta % 22ak B ereduan (irakaskuntza erdia euskaraz eta beste erdia erdaraz). Hau da, bost ikasle-tik lauk euskarazko irakastereduak aukeratzen zituzten.

Hala ere, faktore honi dagokionez ere, desberdintasun azpimarragarriak daude hiru lurraldeei dagokienez. Gipuzkoako unibertsitateaz kanpoko ikasleen % 74,7ak D ereduan ikasten zuen 2010-2011 ikasturtean, Bizkaiko ikasleen % 55,4ak eta Arabako ikasleen % 42ak. A ereduan (euskara irakasgaia kenduta, irakaskuntza guztia gaztelaniaz) ikasten zuen Arabako ikasleen % 25,5ak, Bizkaiko ikasleen % 20,6ak eta Gipuzkoako ikasleen % 9ak. Kasu honetan ere, herrialde bakoitzak bizi duen egoera soziolingüistikoak eragina dauka umeen irakasteredua aukeratzekoan, eta, ondorioz, Bizkaian, eta, bereziki, Gipuzkoan, Araban baino hedatuago daude euskarazko irakastereduak.



Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritza eta Eustat. Irakaskuntzaren Estatistika.

Fuente: Departamento de Educación, Universidades e Investigación. Gobierno Vasco y Eustat. Estadística de la Enseñanza.

El 17,35% de la población estudiantil de la C.A. de Euskadi estudiaba en el modelo A durante el curso 2010-2011, pero es reseñable que en aquel año el 72,5% de los niños y niñas que se matricularon en educación infantil lo hicieron en el modelo D, el 23% en el modelo B y el 4% en el modelo A. Es decir, el modelo de enseñanza en castellano está desapareciendo paulatinamente en la C.A. de Euskadi. Por ejemplo, en Gipuzkoa, en el curso 2010-2011, sólo 711 niños y niñas realizaron la matrícula para el modelo A.

Aún así, es innegable que el modelo A tiene fuerza en la formación profesional de grado medio y grado superior (76,5% y 72,4%, respectivamente). En este sentido parece ser que, en el futuro, quienes cursen estudios universitarios gozarán de un mayor nivel de euskera que quienes estudien formación profesional. Con otras palabras, quienes tengan mayor nivel de estudios y, por lo tanto, integren la élite que en el futuro guíe la C.A. de Euskadi serán más euskaldunes que los trabajadores y trabajadoras.

Euskal AEko ikasleen % 17,35ak A ereduan ikasten zuen 2010-2011 ikasturtean, baina aipagarria da, urte horretan, haur-hezkuntzan matriculatu ziren umeen % 72,5ek D eredua aukeratu zuela, % 23ak B eredua eta % 4ak A eredua. Alegia, apurka-apurka erdarazko irakasteredua desagertzen ari da Euskal AEn. Gipuzkoan, adibidez, 2010-2011 ikasturtean, bakarrik 711 ume matriculatu ziren A ereduan.

Hala ere, uka ezina da A eredua indartsu dagoela Erdi Mailako (% 76,5) eta Goi Mailako Lanbide Heziketan (% 72,4). Zentzu honetan, badirudi unibertsitate ikasketak izango dituztenek lanbide heziketan ikasiko dutenek baino euskara maila hobea izango dutela etorkizunean. Beste berba batzuekin esanda, ikasketa maila altuagoa izango dutenak eta, beraz, etorkizunean Euskal AE gidatuko duten eliteak langileak baino euskaldunagoak izango dira.

Estudiantes de enseñanzas de régimen general no universitarias de la C.A. de Euskadi, por territorio histórico, nivel, modelo bilingüe de enseñanza y titularidad (2010/2011)

25

Euskal Aeko araubide orokorreko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetako ikasleak, lurralde historikoaren, mailaren, irakasteredu elebidunaren eta titulartasunaren arabera (2010/2011)

	Guztira Total	A eredia Modelo A	B eredia Modelo B	D eredia Modelo D	X eredia Modelo X
Haur hezkuntza / Educación infantil	93.749	3.824	21.500	67.981	444
Lehen hezkuntza / Educación primaria	117.041	8.669	32.863	74.671	838
Haur-lehen hezkuntza berezia Educación infantil y primaria especial	442	340	40	62	–
Derrigorrezko bigarren hezkuntza (DBH) Educación Superior Obligatoria (ESO)	70.637	10.832	19.808	39.474	523
DBHko Hezkuntza Berezia Educación Especial de ESO	215	104	70	41	–
Batxilergoa / Bachiller	29.692	13.424	471	15.598	199
Erdi mailako LH / FP de grado medio	11.737	8.980	95	2.662	–
Goi mailako LH / FP de grado superior	17.800	12.897	403	4.500	–
Hezkuntza berezia zereginen ikaskuntza Aprendizaje de tareas, educación especial	410	243	28	139	–
Guztira / Total	341.723	59.313	75.278	205.128	2.004

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren eta Eustat. Irakaskuntzaren Estatistika.

Fuente: Departamento de Educación, Universidades e Investigación. Gobierno Vasco y Eustat. Estadística de la Enseñanza.

4.2. Enseñanza universitaria

El euskera también se fortalece paulatinamente en el sistema universitario vasco. Por un lado, cada vez son más quienes escogen realizar la prueba de acceso a la universidad en euskera. Según el Plan Rector de la UPV/EHU, durante el curso 2000-2001, el 38,01% de los alumnos y alumnas escogió realizar la prueba en euskera. En el 2008, fue el 55% del alumnado⁵.

Por otro lado, el porcentaje de personas que estudia euskera en la universidad ha crecido de manera ininterrumpida. Por dar algún dato, en el año 2000-2001, el 30,53% del alumnado que ingresó en la UPV/EHU se matriculó en euskera. Diez años después, en el curso 2009-2010, el 45,79% escogió realizar los estudios en euskera.

4.2. Unibertsitateko irakaskuntza

Euskal Unibertsitate Sisteman ere euskara indartzen joan da etengabe. Alde batetik, gero eta gehiago dira unibertsitate sartzeko proba euskaraz egitea aukeratzen dutenak. UPV/EHUko Euskararen Plan Gidariaren arabera, 2000-2001 ikasturtean, ikasleen % 38,01ak aukeratu zuen proba euskaraz egitea. 2008an, ikasleen % 55ak⁵.

Bestalde, unibertsitatean euskaraz ikasten dutenen ehunekoak hazten joan da etengabe. Datu bat ematearren, 2000-2001 ikasturtean, UPV/EHUn sartu ziren ikasleen % 30,53a euskaraz matrikulatu zen. Hamar urtetara, 2009-2010 ikasturtean, ikasleen % 45,79ak aukeratu zuen ikasketak euskaraz egitea.

Evolución del alumnado matriculado en euskera a su ingreso en la UPV/EHU 2000/01 – 2009/10 (%)

26

Unibertsitatean sartzeko euskaraz matrikulatutako ikasleen bilakaera UPV/EHUn (2000/01 – 2009/10) (%)

2000/ 01	2001/ 02	2002/ 03	2003/ 04	2004/ 05	2005/ 06	2006/ 07	2007/ 08	2008/ 09	2009/ 10
30,53	36,14	35,73	37,82	39,60	42,35	42,52	45,37	46,26	45,79

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea Zenbakitan 2009-2010. UPV/EHU.

Fuente: La Universidad del País Vasco en cifras, 2009-2010. UPV/EHU.

⁵ En 2008, 9.163 jóvenes se matricularon para realizar las pruebas de acceso a la universidad. Es llamativo que el número de aprobados en el modelo D (94,4%) es mayor que el de modelo A (92,9%).

⁵ 2008an, 9.163 gazte matrikulatu ziren unibertsitate sartzeko probak egiteko. Aipatzekoa da D ereduko gaitutuen kopurua (% 94,4) A eredukoena baino altuagoa (% 92,9) izan zela.

Para concluir, el número de créditos en euskera ofertados por las tres universidades del sistema universitario vasco también ha aumentado. En el año 2000-2001, el 43% de todos los créditos ofertados por la UPV/EHU eran en euskera; en el curso 2006-2007, eran el 49%. En la Universidad de Deusto, el 20% de todos los créditos que se ofrecían en el curso 2001-2002 era en euskera y en el curso 2006-2007, el 25%. En Mondragón Unibertsitatea, el 51% de todos los créditos ofrecidos eran en euskera en el curso 2000-2001 y el 64% en el curso 2006-2007 (Gobierno Vasco, 2008: 54-55 y 58).

4.3. Euskaldunización y alfabetización de personas adultas

Cuando hablamos sobre la enseñanza, no podemos olvidar la euskaldunización y la alfabetización llevadas a cabo por los euskaltegis. Realmente, los euskaltegis han tenido una influencia directa a la hora de crear nuevos euskaldunes y, por lo tanto, a la hora de euskaldunizar la C.A. de Euskadi. Del curso 1989/1990 al curso 2009/2010, anualmente, una media de 42.000 personas se ha estado euskaldunizando y alfabetizando en euskaltegis tanto públicos como privados, y esto ha tenido una considerable influencia en el aumento del número de euskaldunes.

En todo caso, los datos muestran que, desde el comienzo de la década de los 90 hasta la actualidad, el número de alumnos y alumnas que se euskaldunizan y alfabetizan ha ido disminuyendo. Por mencionar un dato, en el curso 2009/2010, el alumnado de los euskaltegis de la C.A. de Euskadi era 7.600 menos que en el curso 1989/1990. En consecuencia, el número de euskaltegis también se ha reducido, así como las matrículas y las horas lectivas.

Centros de euskaldunización y alfabetización, alumnado, matrículas y horas lectivas

27

Euskalduntze eta alfabetatze zentroak, ikasleak, matrikulak eta ikastorduak

	1989/1990	1990/1991	1995/1996	2000/2001	2003/2004	2009-2010
Zentroak / Centros	–	–	160	121	109	105
Ikasleak (gizonak eta emakumeak) Alumnos (hombres y mujeres)	47.322	48.016	44.855	37.141	35.337	39.726
Ikasle emakumeak / Alumnas	–	–	–	–	–	26.812
Matrikulak / Matrículas	–	–	57.835	45.987	43.694	49.957
Ikastorduak (milaka) / Horas lectivas (miles)	12.095	12.582	12.964	10.075	9.002	9.117

Iturria / Fuente: Helduen Alfabetatze Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE).

También se ha de mencionar el alto porcentaje de mujeres entre la población estudiantil: son el 67,5% de las personas que se están euskaldunizando o alfabetizando.

Para concluir, está claro que existen diferencias significativas entre los tres territorios de la C.A. de Euskadi en lo referente a los centros de euskaldunización y alfabetización, alumnado, matrículas y horas lectivas. Según los datos de 2009/2010, la mayoría de los euskaltegis están en Bizkaia (45,7%) y Gipuzkoa (40%), así como la mayoría del alumnado (el 56,3% en Bizkaia y el 26,7% en Gipuzkoa). Con este estado de cosas, es comprensible que en Bizkaia y en Gipuzkoa el número de personas euskaldunes sea mayor que en Álava.

Azkenik, Euskal Unibertsitate Sistemako hiru unibertsitateek euskaraz eskaintzen dituzten kredituak ere ugaritu egin dira. 2000-2001 ikasturtean, euskaraz ziren UPV/EHU-k eskaintzen zituen kreditu guztien % 43a; 2006-2007 ikasturtean, % 49a ziren. Deustuko Unibertsitatean, 2001-2002 ikasturtean eskaintzen ziren kreditu guztien % 20a ziren euskaraz, eta 2006-2007 ikasturtean, % 25a. Mondragón Unibertsitatean, eskaintako kreditu guztien % 51 euskaraz ziren 2000-2001 ikasturtean, eta % 64 2006-2007 ikasturtean (Eusko Jaurlaritza, 2008: 54-55 eta 58).

4.3. Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea

Irakaskuntzari buruz ari garenean, ezin ahantzi euskaltegien bidez burutu den helduen euskalduntzea eta alfabetatzea. Egiazki, euskaltegiek eragin zuzena izan dute euskaldun berriak sortzen eta, beraz, Euskal AE euskalduntzen. 1989/1990 ikasturteetik 2009/2010 ikasturtera, urtero, batez beste, 42.000 bat ikasle aritu izan dira euskalduntzen eta alfabetatzen euskaltegi publiko zein pribatuetan, eta horrek eragin zuzena izan du euskaldun kopurua handitzerakoan.

Dena dela, datuek erakusten dute 90. hamarkadaren hasietarik gaur egunera, euskalduntzen eta alfabetatzen aritzen diren ikasleen kopurua txikitzen joan dela. Datu bat ematearren, 2009/2010 ikasturtean, 1989/1991 ikasturtean baino 7.600 bat ikasle gutxiagok ikasten zuten Euskal AEko euskaltegietan. Ondorioz, euskaltegiak gutxitu egin dira, baita matrikulak eta ikastorduak ere.

Aipatzekoa ere bada handia dela euskaraz ikasten ari direnen artean dagoen emakumeen ehunekoa: euskalduntzen edo alfabetatzen ari diren ikasleen % 67,5a dira.

Azkenik, argi ikusten da desberdintasun adierazgarriak daukela Euskal AEko hiru probintzien artean euskalduntze eta alfabetatze zentroi, ikasle, matrikulei eta ikastorduei dagokienez. 2009/2010eko datuen arabera, euskaltegi gehienak Bizkaian (% 45,7) eta Gipuzkoan (% 40) daude, baita ikasle-riaren gehiengoa ere (% 56,3a Bizkaian eta % 26,7a Gipuzkoan). Gauzak horrela, ulergarria Bizkaian eta Gipuzkoan Araban baino euskaldun gehiago egotea.

	Araba / Álava	%	Bizkaia	%	Gipuzkoa	%
Zentroak / Centros	15	14,3	48	45,7	42	40,0
Ikasleak (gizonak eta emakumeak) Alumnos (hombres y mujeres)	6.818	17,0	22.634	56,3	10.744	26,7
Ikasle emakumeak / Alumnas	4.671	68,5	15.266	67,5	7.185	66,9
Matrikulak / Matrículas	8.024	16,1	29.054	58,2	12.879	25,8
Ikastorduak (milaka) / Horas lectivas (miles)	1.566	17,1	5.362	58,8	2.189	24,0

Iturria / Fuente: **Helduen Alfabetatze Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE)**.

El informe *Language Vitality and Endangerment (2003)* de la UNESCO distingue seis estados de vitalidad desde el punto de vista de la presencia con la que cuentan las lenguas en la enseñanza (sexto factor):

- Una lengua no está en peligro cuando tiene fijada su ortografía, existe una tradición de lectura y escritura, existen gramáticas, diccionarios, libros de texto, literatura y medios de comunicación, y la lengua escrita es utilizada en la administración y en la enseñanza.
- Una lengua es vulnerable cuando tiene fijada su ortografía, existe una tradición de escritura y lectura, existen gramáticas, diccionarios, libros de texto, literatura y medios de comunicación, y los niños y niñas aprenden a leer y escribir en su lengua, y sin embargo, la lengua escrita no es utilizada en la administración.
- Una lengua está en peligro cuando existen materiales escritos, los niños y niñas pueden trabajar la lengua escrita en la escuela, pero los niños y niñas no utilizan los materiales escritos de alfabetización.
- Una lengua está en grave peligro cuando existen materiales escritos pero sólo los puede utilizar una minoría, o cuando para otros sólo tiene un valor simbólico, y esa lengua no se utiliza para la enseñanza, la escritura ni la lectura.
- Una lengua está en situación crítica cuando la comunidad lingüística conoce la ortografía y escribe algo.
- Una lengua puede estar a punto de desaparecer cuando carece de ortografía.

Tras observar los datos relativos a la enseñanza, se podría decir que el euskera es vulnerable, ya que tiene su ortografía, ha desarrollado una pequeña tradición de lectura y escritura y cuenta con gramáticas, diccionarios, libros de texto, literatura y medios de comunicación, pero no se puede afirmar que sea el idioma escrito de la administración.

Unescoren *Language Vitality and Endangerment (2003)* txostenak sei bizi-ingar egoera desberdintzen ditu hizkuntzek irakaskuntzan duten presentziaren ikuspuntutik (seigarren faktorea):

- Hizkuntza bat ez dago arriskuan, ortografia zehaztua duenean, idazteko eta irakurtzeko tradizioa dagoenean, eta gramatikak, hiztegiak, testuliburuak, literatura eta komunikabideak daudenean. Idatzitako hizkuntza administrazioan eta irakaskuntzan erabiltzen da.
- Hizkuntza bat bulnerablea da, ortografia zehaztua duenean, idazteko eta irakurtzeko tradizioa dagoenean, eta gramatikak, hiztegiak, testuliburuak, literatura eta komunikabideak daudenean eta umek euren hizkuntzan idazten eta irakurtzen ikasten dutenean. Dena dela, hizkuntza idatzia ez da administrazioan erabiltzen.
- Hizkuntza bat arriskuan dago, idatzitako materialak daudenean, umek hizkuntza idatzia eskolan landu dezakete-nean, baina umek alfabetatzeko material idatziak erabiltzen ez dituztenean.
- Hizkuntza bat arrisku bizian dago, idatzizko materialak daudenean, baina bakarrik gutxiengo batentzat erabilgarriak direnean; edo beste batzuentzat balio sinboliko hutsa dutenean. Hizkuntza horretan ez da irakasten idazten eta irakurtzen.
- Hizkuntza bat egoera kritikoa dago, hizkuntza komunitateak ortografia ezagutzen duenean eta zerbait idazten duenean.
- Hizkuntza bat desagertzeko zorian egon daiteke, inolako ortografiarik ez duenean.

Irakaskuntzari loturiko datuak ikusi ostean, nire ustez, euskara bulnerablea da. Izan ere, ortografia dauka, idazteko eta irakurtzeko tradizio txiki bat garatu da, eta gramatikak, hiztegiak, testuliburuak, literatura eta komunikabideak badaude. Dena dela, ezin da esan administrazioaren idatzizko hizkuntza denik.

5. CONCLUSIONES GENERALES

En 25 años, el porcentaje de personas capaces de hablar en euskera ha aumentado en la C.A. de Euskadi. En 1981 uno de cada cinco habitantes era euskaldun; en 2006, uno de cada tres.

Hay quien sostiene que la C.A. de Euskadi no se está euskaldunizando a la velocidad que debería. Puede que tengan razón y que los esfuerzos que se están realizando deban ofrecer mejores resultados. En todo caso, es irrefutable que, en una sociedad con alrededor de dos millones de personas, el hecho de contar con 327.118 nuevos hablantes en un periodo de 25 años (entre 1981 y 2006) es un aumento considerable. Incluso diría más: si el grupo de personas capaces de expresarse en euskera continúa aumentando a la velocidad actual (una media de 13.000 hablantes más por año), se puede pensar que en 20 años alrededor de la mitad de la población de la C.A. de Euskadi será euskaldun.

En este aumento que podría producirse en el futuro, las políticas que se emprenden con los parcialmente euskaldunes como objetivo podrían tener un gran impacto, ya que este grupo ha crecido de manera ininterrumpida a partir del año 1981 (en año 2006 había 158.545 más parcialmente euskaldunes que en 1981 en la C.A. de Euskadi). Si se cuida debidamente a los casi euskaldunes y si se les ofrecen iniciativas atractivas para atraerlos al mundo del euskera, el número de euskaldunes puede aumentar mucho en los años venideros.

También es reseñable que el número de personas alfabetizadas en euskera ha aumentado espectacularmente. En el año 2006 había 431.193 euskaldunes alfabetizados más que en 1981 en la C.A. de Euskadi. Por otro lado, entre los parcialmente euskaldunes también existe un gran número de personas alfabetizadas (en el año 2006, eran 287.400 los parcialmente euskaldunes alfabetizados de la C.A. de Euskadi).

En la historia de Euskal Herria nunca han existido tantas personas alfabetizadas y esto puede ser un recurso importante para reforzar el euskera. En mi opinión, si se crean productos culturales atractivos en euskera es posible atraer a un gran número de euskaldunes y parcialmente euskaldunes al mundo del euskera y, al mismo tiempo, reforzar su uso.

El número de personas que son capaces de expresarse en euskera y el de personas alfabetizadas está aumentando; sin embargo, las cosas no han cambiado en cuanto a la lengua materna: en los últimos veinte años, el euskera es la lengua materna de uno de cada cuatro euskaldunes. Y esto es así debido, en mi opinión, a que el mundo del euskera ha crecido gracias a los euskaldunberris, los cuales tienen problemas para utilizar y transmitir el euskera. Los euskaldunberris tienen una densidad pequeña de personas bilingües en su entorno y más dificultad para expresarse que los euskaldunzaharras. Estos dos factores pueden haber tenido alguna relevancia para que los datos sobre la lengua materna no hayan variado durante años.

Los estudios, además, muestran que la mayoría de los euskaldunberris son jóvenes y que su entorno familiar y relacional es totalmente erdaldun (Encuesta Sociolingüística, 2001 y 2006). En sus familias son pocos los miembros que saben

5. ONDORIO OROKORRAK

25 urtetan, euskaraz aritzeko gai den biztanleriaren ehunekoa handitzen joan da Euskal AEn. 1981ean, euskalduna zen bost biztanletik bat, eta 2006an, hirutik bat.

Batzuk diote Euskal AE ez dela behar bezalako abiadurarekin euskalduntzen ari. Agian arrazoia dute, eta egiten ari garen ahaleginek emaitza hobeto eman beharko lituzkete. Dena dela, onartu egin behar da, bi milioi inguru biztanle dituen gizaratean, hogeita bost urtetan (1981tik 2006ra) euskaraz 327.118 hiztun gehiago izatea hazkunde garrantzitsua dela. Gehiago esango dut, euskaraz hitz egiteko gai diren taldeak orain arteko abiada abiadura berarekin handitzen jarraitzen badu (urtean, batez beste 13.000 hiztun gehiago), pentsa daitekeena da 20 urtetan Euskal AEko biztanleriaren erdia inguru euskalduna izango dela.

Etorkizunean gertatu daitekeen hazkunde honetan, eragin izugarria izan dezake ia-euskaldunei begira martxan jartzen diren politikak. Izan ere, talde hau etengabe handitu da 1981. urtetik (2006. urtean, 1981. urtean baino 158.545 ia-euskaldun gehiago zegoen Euskal AEn). Nire ustez, ia-euskaldunak behar bezala zaintzen badira, eta euskararen mundura erakartzeko ekimen erakargarriak eskaintzen bazaizkie, euskaldunen kopurua asko hazi daiteke datozen urteotan.

Aipagarria ere bada euskaraz alfabetatuta daudenen kopurua itzelean hazi dela. 2006. urtean, 1981. urtean baino 319.452 euskaldun alfabetatu gehiago bizi zen Euskal AEn. Bestalde, ia-euskaldunen artean ere alfabetatu asko dago (2006. urtean, 287.400 ia-euskaldun alfabetatu zegoen Euskal AEn).

Euskal Herriaren historian, ez da inoiz izan horrenbeste alfabetatu, eta hori euskara indartzeko baliabide garrantzitsua izan daiteke. Nire ustez, euskarazko produktu kultural erakargarriak sortzen badira, euskaldun eta ia-euskaldun asko erakarri daiteke euskararen mundura, eta horrekin, baita euskararen erabilera sendotu ere.

Euskaraz hitz egiteko gai diren zein euskaraz alfabetatuta daudenen kopuruak handitzen ari dira; baina, hala ere, ama hizkuntzari dagokionez, gauzak ez dira aldatu: hogeita bost urtetik hona, euskara lau euskaldunetik baten ama hizkuntza da. Eta hori horrela da, nire ustez, euskararen mundua euskaldun berriekin hazi delako nagusiki, eta hauek euskara erabiltzeko eta euskara transmititzeko oztopoak dituztelako. Euskaldun berriek elebidun dentsitate txikia dute inguruan eta euskaldunzaharrek baino hitz egiteko trebetasun gutxiago. Bi faktore hauek eragiten egon daitezke ama hizkuntzari buruzko datuak urteetan aldatu gabe egoteko.

Ikerketek baita erakusten dute (Soziolingüistikako Inkesta, 2001 eta 2006), euskaldun berri gehienak gazteak direla, eta euren familia ingurunea eta harreman ingurunea erabat erdalduna dela. Beren familietan gutxiak dakite euskaraz, eta popu-

euskera y suelen vivir en áreas metropolitanas de gran densidad de población. En este sentido, para que el euskera avance es imprescindible impulsar políticas lingüísticas a favor de los euskaldunberri (no olvidemos que en el 2006 el 13% de la población de la C.A. de Euskadi era euskaldunberri). Debemos mimar a estos hablantes que el euskera ha ganado con tanto esfuerzo, para que en un futuro sean transmisores y hablantes del euskera.

Del mismo modo parece importante la puesta en marcha de planes especiales para impulsar el euskera en capitales y grandes ciudades. Y es que en la C.A. de Euskadi una de cada cuatro personas bilingües (26,29%) vivía en una capital en el año 2006, siendo muchas de ellas euskaldunberri.

Deben fomentarse iniciativas a favor del euskera en grandes pueblos y ciudades, pero sin olvidarse de los municipios euskaldunes, ya que, al parecer, el número de municipios muy euskaldunes está disminuyendo (en el 1981, en la C.A. de Euskadi había 79 municipios en los cuales el porcentaje de euskaldunes era mayor que el 80% y en el 2006 había 68). Por lo tanto, se debe investigar qué está sucediendo en los municipios pequeños en los cuales el euskera está fuerte, para poder tomar medidas adecuadas.

Deben impulsarse la transmisión y el uso, pero en mi opinión, el mayor reto del euskera es el uso; cada vez hay más personas capaces de entender, hablar, escribir y leer en euskera, pero no parece que esto influya en su uso.

Entre los años 1991 y 2006 el porcentaje de personas que hablan euskera en casa apenas ha variado (en el año 1991, el 13,8% de la población de la C.A. de Euskadi hablaba euskera en casa y en 2006, el 13,37%). Aunque tres de cada cuatro euskaldunes (75%) hablan principalmente en euskera con sus hijos e hijas, el uso del euskera no aumenta lo suficiente.

Durante los últimos años se han puesto en funcionamiento varias iniciativas con el fin de impulsar su uso, pero, en mi opinión, debe hacerse un esfuerzo aún mayor en este ámbito. Deben impulsarse, principalmente, iniciativas encaminadas a reforzar el uso en los ámbitos formales y en los ámbitos nuevos, es decir, en Internet y en los medios de comunicación audiovisuales. Si se quiere impulsar su uso entre la juventud el euskera no puede quedarse atrás en estos campos.

Asimismo, el sistema educativo debe ser capaz de adecuarse a los nuevos tiempos y prever el futuro.

El sistema educativo no universitario ha realizado un gran esfuerzo en el proceso de euskaldunización. Muchos niños y jóvenes que han estudiado en el modelo B y, sobre todo, en el modelo D se han euskaldunizado gracias a la escuela. Aun así, son muchos los que sostienen que bastantes de los que han pasado por los modelos B y D acaban la ESO o el Bachiller sin euskaldunizarse debidamente. Y qué decir de los que escogen el modelo A. Sin negar el gran trabajo realizado por la escuela en el proceso de euskaldunización, me parece importante estudiar mejor cómo se da la enseñanza de euskera, para poder optimizar los resultados.

El número de créditos que se ofrecen en euskera en la universidad también ha aumentado considerablemente y la educación superior ha realizado un gran trabajo formando al

lazio-dentsitate handiko metropoli gune oso erdaldunetan bizi dira, nagusiki. Zentzu honetan, euskarak aurrera egingo badu, ezinbestekoa da euskaldun berrien aldeko hizkuntza politikak bultzatzea (gogoan izan, 2006an, Euskal AEko biztanleriaren % 13 euskaldun berria zela). Hainbeste kostatuta euskarak irabazi dituen hiztun hauek mimatu egin behar dira, etorkizunean euskararen transmisore eta erabiltzaile izan daitezen.

Modu berean, garrantzitsua iruditzen zait hiriburuetara eta hiri handietara zuzendutako euskararen aldeko plan bereziak martxan jartzea. Izan ere, Euskal AEko lau elebidunetik bat (% 26,29) hiriburuetan bizi zen 2006an, eta hauetariko asko euskalduberriak dira.

Hiri eta herri handietan euskararen aldeko ekimenak bultzatu behar dira, baina udalerrri euskaldunak ahantzi gabe. Izan ere, badirudi udalerrri oso euskaldunen kopurua murrizten ari dela (1981ean, euskaldunen ehunekoak % 80tik gorakoa zen udalerrriak Euskal AEn 79 ziren, eta 2006an, 68). Beraz, euskara indartsu dagoen udalerrri txikietan ere euskararekin zer gertatzen ari den ikertu beharra dago, behar bezalako neurriak hartzeko.

Transmisioa eta ezagutza indartu behar dira, baina, nire ustez, erabilerarena da euskararen erronkarik garrantzitsuenetarikoa. Izan ere, gero eta gehiago dira euskara ulertzeko, hitz egiteko, idazteko eta irakurtzeko gai direnak, baina badirudi horrek ez duela eraginik erabileran.

1991. urtetik 2006ra, etxean euskaraz hitz egiten dutenen ehunekoak ia ez da aldatu (1991. urtean, Euskal AEko biztanleriaren % 13,8k hitz egiten zuen euskaraz etxean, eta 2006an, % 13,37k). Nahiz eta lau euskaldunetik hiruk (% 75) nagusiki euskaraz hitz egiten duten seme-alabekin, euskararen erabilerak ez du behar beste gora egiten.

Azken urteotan hainbat ekimen jarri dira martxan euskararen erabilera bultzatzeko, baina, nire ustez, oraindik ere ahalegin handiagoa egin behar da arlo honetan. Bereziki eremu formalean erabilera bultzatzeko ekimenak bultzatu behar dira, baita eremu berrietan ere, hau da, interneten eta ikus entzuteko komunikabideetan. Gazteen artean euskararen erabilera sustatu nahi bada, euskara ezin da arlo hauetan lo gelditu.

Hezkuntza sistemak ere garai berriei egokitzen eta etorkizuna aurreikusten jakin behar du.

Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza sistemak lan izugarria egin du euskalduntze prozesuan. B eta, bereziki, D ereduetan ikasi duten ume eta gaztetxo asko euskaldundu da eskolari esker. Dena dela, askok diote B eta D ereduetatik pasatzen direnatariko asko behar bezala euskaldundu barik ateratzen direla DBH-tik edota Batxilergotik. Zer esanik ez A ereduak aukeratzen dutenak. Euskalduntze prozesuan eskolak orain arte egin duen lana ukatu gabe, garrantzitsua iruditzen zait euskararen irakaskuntza nola egiten den gehiago aztertzea, emaitzak hobegotzeko.

Unibertsitatean ere euskaraz eskaintzen den kreditu kopurua asko hazi da, eta goi mailako hezkuntzak ere lan asko egin du ikasleak euskaraz trebatzen. Dena dela, euskararen era-

alumnado en euskera. Sin embargo, si se tienen en cuenta los problemas que tiene el uso del euskera en el mundo laboral⁶, parece importante crear iniciativas que impulsen a los estudiantes a utilizarlo en el ámbito laboral.

Además de la escuela y la universidad, los euskaltegis han sido un agente que ha tenido gran influencia en el proceso de euskaldunización y alfabetización. Del curso 1989/1990 al curso 2009/2010, anualmente, una media de 42.000 personas se ha estado euskaldunizando y alfabetizando en euskaltegis tanto públicos como privados y esto ha tenido una considerable influencia en el aumento del número de euskaldunes.

En todo caso, los datos muestran que, desde el comienzo de la década de los 90 hasta la actualidad, el número de alumnos y alumnas de los euskaltegis ha ido disminuyendo. Esto exige una reflexión: deben analizarse la oferta y la demanda para aumentar el número de matrículas. Es decir, se debe conocer qué está sucediendo en el mundo de euskaldunización y alfabetización de adultos, para poder atraer a más alumnado. Es más, siendo la mayoría del alumnado de los euskaltegis mujeres (concretamente, son el 67,5% de las personas que se están euskaldunizando o alfabetizando), se debe realizar una oferta que se adecue a su modo de vida y necesidades. Si quieren seguir siendo motor del proceso de euskaldunización y alfabetización, las personas responsables y el profesorado de los euskaltegis deben sopesar muy bien las estrategias que utilizarán para atraer al futuro alumnado y la oferta educativa que realizarán.

El *Atlas mundial de las lenguas en peligro* (Moseley: 2010) de la UNESCO clasifica el euskera entre las lenguas vulnerables. En mi opinión, desde el punto de vista de la transmisión y la enseñanza del euskera se puede afirmar que el euskera es vulnerable. No en vano, los hablantes más jóvenes de euskera en la C.A. de Euskadi no son de la generación de los padres (hay muchos niños y niñas aprendiendo euskera), el porcentaje de personas capaces de expresarse en euskera está en continuo ascenso y la mayoría de los niños y niñas aprenden a leer y escribir en la escuela. Aun así, si nos fijamos en la capacidad y en el uso del euskera, creo que es una lengua en peligro. Se debe tener en cuenta que en la C.A. de Euskadi dos de cada tres ciudadanos y ciudadanas no lo saben y que el euskera se utiliza en ámbitos sociales limitados.

A pesar de que goce de salud en algunos ámbitos, a mi entender, el euskera, en la C.A. de Euskadi, debe situarse entre las lenguas que se encuentran en situación de peligro. Y qué decir si miramos a Euskal Herria en su conjunto. Vista la situación del euskera en Navarra e Iparralde, me parece que el euskera está en peligro o en grave peligro.

bilerak lan munduan dituen arazoak aintzat hartzen baditugu⁶, garrantzitsua iruditzen zait ikasleak lan arloan euskara erabiltzera bultzatuko dituzten ekimenak sortzea.

Eskolak eta unibertsitateak ez ezik, euskaltegiek ere eragin handia izan dute euskalduntze eta alfabetatze prozesuan. 1989/1990 ikasturtetik 2009/2010 ikastertera, urtero, batez beste, 42.000 bat ikasle aritu izan dira euskalduntzen eta alfabetatzen euskaltegi publiko zein pribatuetan, eta horrek eragin zuzena izan du euskaldun kopurua handitzerakoan.

Dena dela, datuek erakusten dute 90. hamarkadaren hasietarik gaur egunera euskaltegietakoa ikasleen kopurua txikitzen joan dela. Honek gogoeta bat eskatzen du: eskaintza eta eskaera aztertu behar dira matrikula kopurua igotzeko. Alegia, helduen euskalduntze eta alfabetatzearen munduan gertatzen ari dena ezagutu behar da, ikasle gehiago erakartzeko. Are gehiago, emakumezkoak izanik euskaltegietan ari diren ikasle gehienak (euskalduntzen edo alfabetatzen ari diren ikasle % 67,5), hauen bizimodua eta beharizanak kontuan hartuko dituen eskaintza egin beharko da. Euskalduntze-alfabetatze prozesuan motore izaten jarraitu nahi badute, euskaltegien arduradunek zein irakasleek ondo pentsatu behar dituzte jendea erakartzeko erabiliko dituzten estrategiak eta egingo duten irakaskuntza eskaintza.

UNESCOren *Arriskuan dauden munduko hizkuntzen atlas*-a (Moseley: 2010) bulnerableen taldean sartzen du euskara. Nire ustez, euskararen transmisioaren eta irakaskuntzaren ikuspuntutik onartu daiteke euskara bulnerablea dela. Izan ere, Euskal AEko euskararen hiztun gazteenak ez dira gurasoen belaunaldia (ume asko ari dira euskaraz ikasten), euskaraz aritzeko gai direnen ehuneko handitzen joan da etengabe, eta ume gehienek euskaraz idazten eta irakurtzen ikasten dute eskolan. Dena dela, euskaraz hitz egiteko gaitasunari eta erabilerari begiratzen badiegu, euskara arriskuan dagoela iruditzen zait. Kontuan hartu behar da, Euskal AEko hiru herritarretatik bik ez dakitela euskaraz eta euskara gizarte eremu mugatuetan erabiltzen dela.

Arlo batzuetan sendo dagoela onartuta ere, nire ustez, Euskal AEn euskara arriskuan dauden hizkuntzen artean kokatu behar da. Zer esanik ez Euskal Herri osoa kontuan hartzen badugu. Nafarroan eta Iparraldean euskarak bizi duen egoera ikusita, euskara arriskuan edo guztiz arriskuan dagoela iruditzen zait.

⁶ Según la investigación llevada a cabo por el Gobierno Vasco en el marco del programa LanHitz, en las empresas de más de 100 trabajadores de la C.A. de Euskadi el euskera se usa poco, con unas pocas excepciones muy concretas. Algo parecido sucede en la mayoría de los restaurantes y bares de la C.A. de Euskadi. El euskera es utilizado en el 9% de los bares y restaurantes. Casi la mitad de los establecimientos no lo utilizan nunca, y cuatro de cada cinco nunca o rara vez. Si se tiene en cuenta que el 60% no sabe euskera, estos datos no son nada sorprendentes. En el comercio al por menor de la C.A. de Euskadi la tendencia es idéntica, ya que en dos de cada tres establecimientos (64%) nadie sabe euskera.

⁶ LanHitz programaren baitan Eusko Jaurlaritzak egin dituen ikerketen arabera, EAEko 100 langiletik gorako enpresetan euskara gutxi erabiltzen da, salbuespen oso zehatz batzuetan izan ezik. Gauza bera gertatzen da EAEko jatetxe eta taberna gehienetan. Jatetxe eta tabernen %9an erabiltzen da euskara. Establezimenduen ia erdiek ez dute euskara inoiz erabiltzen, eta bostetik lauk ez dute inoiz erabiltzen edo oso gutxitan erabiltzen dute. Horietan %60k euskaraz ez dakitela kontuan hartzen badugu, datu hauek ez dira batere harrizkoak. EAEko txikizkako saltokietan ere joera bera dago, hain zuzen ere, hiru dendatik bitan, %64tan, inork ez daki euskaraz.

BIBLIOGRAFÍA

- UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO. *La Universidad del País Vasco en cifras, 2009-2010*. (http://www.ehu.es/p200-shstatct/eu/contenidos/estadistica/universidad_cifras_2009_2010/eu_cif_2010/adjuntos/EHU_zenbakitan.pdf).
- CONSEJO SOCIAL DEL EUSKERA (2011). *Ildoen Azterketa eta Zehaztapena 2011-2016* (http://www.kontseilua.org/fitxategia_ikusi.php?id_fitxategia=460).
- GOBIERNO VASCO (2008). Plan Universitario 2007-2010 para el Sistema Universitario Vasco. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz.
- (2009). *IV. Mapa sociolingüístico*. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz.
- GOBIERNO VASCO, GOBIERNO DE NAVARRA Y EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA (2005). *Encuesta Sociolingüística de Euskal Herria 2001. Seguimiento del Euskera III*. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz.
- MOSELEY, C. (ed.) (2010). *Atlas mundial de las lenguas en peligro*, tercera edición. París, Ediciones UNESCO. Versión on line: <http://www.unesco.org/culture/languages-atlas/es/atlasmap.html>
- UNESCO (2003). *Language Vitality and Endangerment*. Paris (www.unesco.org).

BIBLIOGRAFIA

- EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA. *Euskal Herriko Unibertsitatea Zenbakitan 2009-2010*. (http://www.ehu.es/p200-shstatct/eu/contenidos/estadistica/universidad_cifras_2009_2010/eu_cif_2010/adjuntos/EHU_zenbakitan.pdf).
- EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA (2011). *Ildoen Azterketa eta Zehaztapena 2011-2016* (http://www.kontseilua.org/fitxategia_ikusi.php?id_fitxategia=460).
- EUSKO JAURLARITZA (2008). 2007-2010eko Unibertsitate Plana. Euskal Unibertsitate Sistemarako Plana. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.
- (2009). *IV. Mapa Soziolingüistikoa*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.
- EUSKO JAURLARITZA, NAFARROAKO GOBERNUA ETA EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA (2005). *Euskal Herriko Soziolingüistikako Inkesta 2001. Euskararen Jarraipena III*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.
- MOSELEY, C. (ed.) (2010). *Arriskuan dauden munduko hizkuntzen atlasa*, 3. argitalpena. Paris, UNESCO Argitalpenak. On-line bertsioa: <http://www.unesco.org/culture/languages-atlas/es/atlasmap.html>
- UNESCO (2003): *Language Vitality and Endangerment*. Paris (www.unesco.org).